

deba berri

2021eko URRIA 16. zbk.



KULTURA HERRIAREN BIZIGARRI



Debaberri 16
2021eko urria

AURKIBIDEA

2Udaletxetik
3Udaren balantzea
4-5Dagigun partaidetzarako gunea
6Elizburuko etxebizitzak
7Hilerria
8-9Udako kultura eskaintza
10Euskara merkataritzan
11Haur-gaztetxoentzatudako eskaintza
12Energia plana
13Tene Mujika
14-15Nekane Goikoetxea AgirreMondragon Unibertsitatekoirakasleari elkarrizketa
16Ludoteka baliabideurriko haurrentzat
17Baserritarren azoka
18-19Laburrak
20Euskal Kostaldeko Geoparkea
21Itziariko Auzo Udala
22-23Alderdien iritzia
24Jose Mari Soto AperribayAmaikak bat taldekopresidenteari elkarrizketa



Deba Udala

© Argitaratzailea: Debako udala.

Egilea: SharinF5 Kooperatiba

Azaleko argazkia: Ander Salegi

Lege Gordailua: L.G.
SSPRAXIAS/FUNCIONES
EJECUTIVAS918-2012



GILEN GARCÍA BOYRA - DEBAKO ALKATEA

ILUNTASUNAREN OSTEKO ARGITASUNA

Tunela igaro ondorengo argitasuna. Horrela identifikatzen dut une hau. Azken hilabeteak bereziak, zailak askotan, izan dira, eta motel joan dira egunak. Tunela bezala irudikatzen ditut orain, amaitzear dela, osasun pandemian igaro ditugun hilabeteak.

Izozkailuan gorde behar izan genituen proiektu asko 2020ko martxoan. Ondoren, pixkanaka, tunelaren barruan argitasuna tarteka ematen duten argi-fokuak bezala, izozkailuan genituen horiek ateratzen joan gara, eta labera sartu, egostera.

Orain, tunelaren begia ikusten ari gara, eta horrekin batera argitasuna. Eta heltzen ari da labean ditugun horiek mahai gainera ateratzeko garaia. Debarrontzat garrantzitsuak diren, eta izango diren proiektuak argia ikusteko prest ditugu, ilusioa sortzen digutenak: Artzabalgo hilerri berriaren prozesu luzea amaitzear dago; Itziariko afera bideratuta; *Dagigun* partaidetzarako gunearen bitartez Deba hobea eraikiko dugu elkarlanean. Iluntasunaren osteko argitasuna ikusten ari gara.

CLARIDAD POST OSCURIDAD

Iluminación tras traspasar el túnel. Así identifico este momento. Los últimos meses han sido especiales, a menudo difíciles, y los días se nos han hecho lentos. Ahora que está a punto de finalizar la pandemia sanitaria, me imagino esos meses de pandemia sanitaria como un túnel.

En marzo de 2020 tuvimos que guardar muchos proyectos en el congelador. Como las luces dentro del túnel que iluminan a intervalos hemos ido descongelando esos proyectos poco a poco y los hemos puesto a cocer en el horno.

Ahora estamos viendo la boca del túnel y con ella la luz. Tenemos dispuestos para ver la luz varios proyectos que son, y van a ser, importantes para la ciudadanía debarra, que nos ilusionan: el largo proceso del nuevo cementerio de Artzabal está a punto de finalizar; el tema de Itziar está encaminado; a través del espacio de participación de *Dagigun* construiremos conjuntamente una Deba mejor. Estamos viendo la claridad post oscuridad.



La temporada de playa ha sido tranquila.

Argazkia: A. Salegi

Lasai igaro da 2021ko hondartza denboraldia

Dagoeneko amaitu da hondartza denboraldia. Eguraldiak asko lagundu ez duen uda hau lasaia izan da orokorrean. Osasun egoera aintzat hartuta, COVID-19aren hedapena saihesteko neurriak hartu dira aurten ere.

Udalak 2020an hartutako hainbat erabaki bete dira. Esaterako, eguzkitakoak eta kirola baimentzea, Ondargaineko terraza legediaren eskakizunetara egokitzea, sorospen zerbitzuaren esleipen berria ateratzea, aldagelak berrantolaketa...

Zerbitzuari dagokionez, aurten, Lapari hondartzak uneoro izan du zaintza zerbitzua, baita itsasgoran ere. Ur-kirolak egiteko gunea hobeto zehaztu da, bandera urdin-gorri handiagokin. Beste kirol gunek bat ere jarri da, goizez, kai-mutur inguruan.

Instalakuntzei dagokionez, aldageletako ur beroko distribuzio sarea berritu da. Sorospen zerbitzuko etxola ere aldatu da, zerbitzua emateko egokiago den bat jarritz.

Bainatzeko ur-kalitatearen jarraipena egin du Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, astero. 13 lagin hartu ditu aurten, eta guztiek bikaina sailkapen maila eman dute.

Udalak ezarrita du Iso 14001 Ingurumen kudeaketa sistema. Horri jarraituz indarrean dagoen legedia betetzen da, eta etengabeko hobekuntza egiten da hondartzan: zerbitzuetan, instalakuntzetan eta kudeaketan.

Udala hasi da dagoeneko 2022ko hondartza-denboraldia prestatzen.

La actividad de la oficina de Turismo de Deba ha estado totalmente condicionada por la COVID-19.

TURISMOA

Debako Turismo bulegoaren jarduera erabat baldintzatuta egon da COVID-19arengatik, jakina da turismoa izan dela pandemiaren ondorioz kaltetuen suertatu den alorretako bat.

Herriko turismo enpresek Turismo bulegoari jakinarazi diotenez, txukun egin dute lan. Alojamentu gehienetan oso okupazio altua izan dute. Azken orduko erreserbak izan dira, baina egonaldiak ere luzeagoak egin dituzte.

Turismo bulegoko datuei dagokionez, urtariletik abuztura arte 6.292 bisitari izan ditu, herritarren kopurua 1.101etik 2.323ra igo da, 2020ko datuekin alderatuta. Araba, Bizkai eta Gipuzko-ako bisitarien kopurua berdintsua izan da, baita Espainiako estatukoena ere. Hortik kanpoko bisitarien kopurua %14 igo da. Dena den, pandemia aurreko datuetatik oso urruti daude datu horiek. Halaber, kontuan izan behar da hainbat arazo tarteko, Debako Turismo bulegoaren ordutegia oso murrizta izan dela, eta itxita ere egon dela hainbat egunetan.

Dagigun, espacio para crear una cultura democrática participativa

Partiendo de una necesidad concreta, la de abrir el debate ciudadano sobre el paseo de la Alameda, el Ayuntamiento de Deba, desde su comisión de participación, ha puesto en marcha un proceso profundo e intenso de activación de una cultura participativa y democrática de los agentes sociales y administrativos del municipio. La presentación del proyecto se realizó el 15 de julio en un acto celebrado en la carpa situada en la misma Alameda. Tras el receso vacacional, se prevé realizar unas conferencias en octubre.

El acto de presentación promovido por la comisión de participación del Ayuntamiento (Gilen García, Itziar Irizar, Pedro Bengoetxea y Eneritz Gómez), contó con la presencia de representantes de los agentes sociales. En él tomaron la palabra el alcalde, Gilen García, el director de Participación de la Diputación Foral de Gipuzkoa, Mikel Pagola, la arquitecta Itziar González y el profesor de la UPV Igor Ahedo.

Desde el espacio de unificación política de la Comisión de Participación y con la implicación del personal técnico y colaborador de las áreas estratégicas del Ayuntamiento (Secretaría, Comunicación, Turismo y Geoparque, Urbanismo, Cultura, Euskera, etc.), se ha comenzado a elaborar y actualizar el mapa de agentes y ciudadanía activa de las asociaciones del municipio, para poder construir con ellos y ellas un espacio estable y sostenible de colaboración. Este espacio será en adelante el

espacio de participación Dagigun (hagámoslo)¹.

El objetivo es devolver a la ciudadanía su protagonismo para definir sus prioridades y necesidades. Capacitación y liderazgo compartido con la comisión de participación en la toma de decisiones y políticas públicas para la mejora de la calidad democrática y la transparencia.

El debate puntual sobre la Alameda irá precedido de la construcción de una auténtica red de personas implicadas, entre sí y en conexión con el Ayuntamiento. Asimismo, se dará la oportunidad de formación en materia de dinamización, participación y calidad democrática a las y los jóvenes que quieran participar en el debate de la Alameda, creando así una bolsa de personas con la formación necesaria para seguir colaborando e implicándose en procesos similares, tanto en sus instituciones y como en los municipios de su entorno. Itziar González e Igor Ahedo les darán la formación. El mismo día 15 de julio se realizó la primera reunión con el grupo formado por 8 personas que se han inscrito como voluntarias. A finales de septiembre seguirán con el trabajo de cara a las conferencias de otoño.



Herriko eragile talde garrantzitsua ari da prozesuaren hasieratik parte hartzen. Debarock-eko, Kultur Elkarteko eta Ipuin kontalarien ordezkari banak prozesuaz espero dutenaren inguruan hitz egin digute bi galderari erantzunez:

1- Zer da zuen elkartearentzat atera nahiko zenutena partaidetza prozesutik? //

2- Zer espero duzue partaidetza prozesutik? //



IÑAKI SAEZ

DEBAROCK KOLEKTIBOA

1- Lehenik eta behin, gure kultur eragilea (ekintza/ekarpen kulturala) ezagutarazi eta egiten dugun hori partekatu nahiko genuke gainontzeko elkarte eta taldeekin, gure ikuspegia azaltzetik hasi eta besteekin amankomunean izan ditzakegun berdintasun eta nahiak ezagutzera. Honekin, guztiok ezinbestekotzat ikusten ditugun behar horiek guztiak identifikatu ahal izango ditugu, gure herria eta bertako biztanle guztiei zuzendutako eskaintza xede dugularik. Bigarren, Debarock Kolektiboaren izaera kontutan hartuta eta hau gure testuingurutik haratago zabaltzeko faltan botatzen ditugun gauza horiei guztiei erantzuna eman behar diogu, baliabide zein aukera aldetik (Kulturagune, elkarte arteko saretzea, lan boluntarioaren sustapena...). Azkenik, aipatutako guztia partaidetza prozesutik ateratzeko aukera ikusten dugu, gure behar berdinak dituzten guztien artean, herritarren artean.

2- Debarock Kolektiboa, herritarrok osatu eta herriarentzako ekintzak burutzen ahalegintzen garen talde honek, bide horretan jarraitu eta hobetzeko ditugun beharrak asebetetzea. Batez ere, egiten dugun eta eskaintzeko daukagun hori, musikaren esparrutik abiatuta beti ere, erakutsi dezakegun lekua. Kultur eragile pila bat gaude herri honetan (Debako banda, Goaz, Gure Kai...), baina guztiok egiten dugun lana plazaratu eta gustuko dugun horretaz gozatzeko gune bat falta zaigu, **KULTURGUNE** bat. Honek, Deban egiten diren kultur ekintza hauetan guztietan elkarlanean aritzeko aukera emango liguke, edozein ekintza antolatzerako garaian, batak bestearekin elkar eraginez laguntzeko esparrua, ikasteko gunea.



MARI SEARA

IPUIN KONTALARIAK

1- Herriko beste taldeekin elkarlanean aritzeko aukerak sortzea nahiko genuke.

2- Herriko kultura taldeak biltzen duen espazio edo gune bat martxan jartzea.



LOURDES GONZALEZ

KULTUR ELKARTEA

1- Debako Kultur Elkartearen egungo egoera zein den herritarrei azaltzea. Kultur Elkartearen egoera iraultzeko gakoak identifikatzea eta elkartearen eraldaketa prozesua martxan jartzeko beharra azaleratzea. Kultur ekimenak antolatzeko gune baten beharra dagoenez, honen inguruan galdetu eta honekin lotutako proiektu kolektiboak martxan jartzeko oinarriak finkatzea. Herritar eta eragileak aktibatzea.

2- Herriaren etorkizunaren inguruko erabakietan eragitea. Instituzioek duten erabakiak hartzeko ohituretan eragitea (herritar eta eragileek hartutako erabakien ardura izatea). Herritar eta eragileen parte hartzeko ohituretan eragitea (erabaki guneetan, proiektu kolektiboetan...). Instituzioek prozesutik aterako diren proposamenen, ideia eta proiektuak martxan jartzeko konpromisoa hartzea.



Con la firma del convenio se desbloquea la situación que estaba bloqueada y permite poner en marcha el proyecto.

Elizburun etxebizitza tasatuak egiteko proiektua martxan jartzeko urratsak eman dira

Elizburun etxebizitza tasatuak egiteko PROTEISA 2002 SL enpresarekin sinatutako hitzarmena berretsi zuen aho batez udalbatzak uztaillaren 29an egindako osoko bilkuran. Hitzarmena sinatzearekin, orain arte blokeatuta zegoen egoera desblokeatu da, eta honenbestez, proiektua martxan jar daiteke.

Hitzarmenaren bidez, Elizburuko lursail horren jabe nagusiarekin akordioa egin du Udalak. PROTEISA 2002 S.L.k, zuzeneko besterentzearen bidez, Udalak "a.300.5" lurzatian duen kuota eskuratu du.

Oinarrizko proiektuaren arabera 38 etxebizitza egingo dira, horietatik 20, hiru logelakoak; 16, bi logelakoak; eta bi etxebizitza egokitu.

Etxebizitzak udal erregimen tasatuko etxebizitzak izango dira, eta Proteisa 2002, SL enpresa izango da etxeak egin eta salduko dituen. Hala ere, sustapen publikoko etxebizitzak izango dira, eta etxebizitza horiek duten erregimen aplikatuko zaie: erosleen ohiko etxebizitza izan beharko da, besterengantzeko baldintza jakin batzuk bete behar dira...

Etxebizitzen erosleak zozketaren bidez aukeratu dira. Udalaren asmoa da urte honen amaieran edo datorrenaren hasieran deialdia egitea: sustapena arautuko duten oinarriak, besteak beste zozketan parte hartzeko interesdunek bete beharreko baldintzak, izena emateko epea, izan beharko dituzten gutxieneko eta gehieneko diru sarrerak, eta abar.

Gero, dagozkien egiaztapenak eta sailkapenak egin ondoren, zozketa egingo da eta Proteisa 2002, SL enpresari zerrenda emango zaio. Hortik aurrera harreman guztia sustatzailearen eta onuradunen artean izango da: eskriturak egitea, ordainketak, etab. Dena den, sustapen publikoko etxebizitzak izango direnez, Udalaren ardurak izango da araudia betetzen dela egiaztatzea sustapen publikoko kalifikazioak indarrean jarraitzen duen bitartean.

Etxebizitza tasatuen salmenta-prezioa Eusko Jaurlaritzaren araudiak baimentzen duen gehieneko prezioaren azpitik errespetatuko da; zehazki, babes ofizialeko etxebizitzetarako indarrean dagoen moduluari 1,3 koefizientea aplikatuta (1.576,40 €/m² erabilgarri), 75 m² erabilgarri dituen etxebizitza bakoitzeko batez besteko prezioa 170.605,89 €koa izango litzateke.

El proyecto base contempla 38 viviendas, de las cuales 20 constarán de 3 dormitorios, 16 de 2 dormitorios y 2 serán viviendas adaptadas

El traslado del cementerio de Amillaga a Artzabal se va a realizar en invierno



Hilerrri batetik besterako gorpuzkien lekualdatzea zehazteko HARGOI SL enpresarekin kudeatuko dute familiek.

Aurtengo Santu Guztien eguna, azaroak 1, Amillagako hilerrian ospatuko da.

En breve se va a comenzar con una nueva fase en el tema del cementerio de Deba. Al mismo tiempo que se corrigen las deficiencias que se detectaron en el nuevo cementerio de Artzabal, y de forma paralela, el ayuntamiento ha comenzado a trabajar en el planteamiento del proceso de traslado de los restos desde el cementerio de Amillaga al de Artzabal. Se trata de un tema delicado, que pretende gestionar con la mayor eficacia y sensibilidad.

La empresa HARGOI SL va a ser la encargada de gestionar estos traslados. En breve se va a instalar un panel informativo a la entrada del cementerio de Amillaga, con la información y los datos para contactar con dicha empresa para que los familiares que así lo deseen puedan contactar con la ella para poder concretar el traslado de restos de sus familiares. También se van a instalar en puntos estratégicos del municipio hojas informativas. Y se va a publicar en los medios del municipio, con el objetivo de que todas las personas interesadas cuenten con la información pertinente. Se va a ofrecer así mismo un contacto para poder aclarar cualquier duda referente a este tema.

Todos los restos podrán ir incinerados al cementerio nuevo y se podrán depositar en un espacio compartido. Los restos de menos de 15 años, también podrán ser depositados en el Columbario, siempre que estén incinerados.

El día de Todos los Santos de este año, 1 de Noviembre, se celebrará en el cementerio de Amillaga. La previsión es que las obras de transporte desde el cementerio antiguo al nuevo se realicen este invierno.

APERTURA DEL CEMENTERIO DE ARTZABAL

Durante la exposición pública del reglamento (hasta el 11 de octubre) del nuevo cementerio, se va a proceder a realizar las reparaciones necesarias y obtener permisos, comprar máquinas, poner en marcha los servicios, etc.

Una vez que esté vigente el reglamento se podrá proceder a depositar en el nuevo cementerio los restos de las personas que fallezcan a partir de ese momento.



Kulturak blaitu du Debako uda

Euri langarrak bezala blaitu digu kulturak Debako uda. Tantaka, etenik gabe. Azken hilabeteak laino artean igaro ditugunaren sentsazioa izan dugu maiz. Ekainarekin batera, baina, biziberritu da gure herria, eta ez edonola gainera.

Herri bizia, kulturaren aberatsa nahi dugu. Ildo horretan, eta osasun egoera aintzat hartuta, uda sasoirako kultura eskaintza zabala landu du Udalak herriko eragileekin elkarlanean.

Ekarpen aberatsa egin dute herriko kultura eragileek. Udak Gobernuak eskerrak eman nahi dizkie egin duten ekarpenarengatik, baina ez horregatik bakarrik. Osasun

egoerara moldatzeko izan duten gaitasunagatik, COVID-19aren hedapena saihesteko egindako kontingentzia planengatik, eta hauek bete zitezen egin duten lan eskergagatik.

Musika protagonista izan zen ekainean Negudak-Ekilarre kolektiboak beste eragile batzuen laguntzarekin antolatutako Ekilarre jaialdiari esker. Honekin eman genion uda kulturalari hasiera. Asteburuetan estilo desberdinetako kontzertu bana eman zen Zumardian jarritako karpan. Karpak berak ere izan du protagonismo handia sasoi honetan, bertan egin baitira ekimenetako asko.

Asko izan dira, esan bezala, egindako ekimenak, arrakastatsuak denak. Batzuk aipatzearren (gehiago egon dira, baina ezin denak aipatu): dantza, antzerkia, musika...



barnebiltzen dituen Iturri ondoan; arte erakusketak; Kultur Elkarteko udako zinema; Gaztetxeko asteazken akustikoak; Jazzez blai; Andra Mari elizako Udako kontzertuak; Musika Bandaren kontzertuak; pala txapelketa; haur parkea; artisautza feria; Federarte; Animadeba. Euskal Jaiarekin borobilduko da udakoa, eta udazkenari begira jarriko gara.





La ciudadanía agradece el uso de la lengua local y se siente más cerca de las personas que le dan el servicio.

Urrats berria establezimenduetako paisaia linguistikoaren euskalduntzean

Udaberrian, Euskara zerbitzuaren bitartez, establezimenduetako paisaia linguistikoaren euskalduntzean pixkanaka-pixkanaka aurrera egiteko establezimenduak bisitatu dira, udalaren ohiko hizkuntza zerbitzua (itzulpenak, kartelak, zuzenketak, errotulazio euskaraz jartzeko diru laguntzak...) eskainiz eta komertzioetan euskara bermatzeko hitzarmenak sinatzea proposatuz. Lehentasuna, eguneroko erosketetako establezimenduetan jarri da nahiz eta, eskaintza, guztiei egiten zaien aldiro-aldiro, e-mailez.

Gustura jaso dute eskaintza dendetako jabeek. Txartel eta kartel dezente jarri da euskaraz bisita horien ondorioz eta sumatu da, lehendik ohiturarik ez zeukatenean artean ere (gehienetan, ez zutelako zerbitzua ezagutzen), eskaera ugalduta dela eta, beharren arabera, erabiltzen jarraituko dutela.

Hainbat arrazoi gaude euskara lehen lerroan jartzeko: Hala nola, zerbitzua bezeroaren hizkuntzan eskaintzea kalitatezko zerbitzua ematea. Gure herriaren gehiengo

euskalduna da, %70etik gora; gazteak, ia denak. Horrez gain, euskaraz hitz egin ez arren, ulertzen dutenak eta ikasten ari direnak, asko dira.

Herritarrek eskertu egiten dute bertako hizkuntza erabiltzea eta gertuago sentitzen dituzte zerbitzua ematen dieten pertsonak, eta ondorioz establezimenduak hala egiten bada. Bisitarietatik askok ere euskaraz bizi den herri bat delako egiten dute, besteak beste.

Udari begira, berriz, UEMAK ere kanpaina egin du herriko establezimenduetan bertakoa, euskara, balioan jartzeko. Diptikoak banatu dira komertzio guztietara eta jatorduak eskaintzen dituztenei, mahai gainerakoak jartzeko gonbita egin zaie.

Bertako produktuen, paisaiaren eta gainerako eskaintza zabalaren artean, udalerrri euskaldunen nortasuna egokien islatzen duena euskara dela nabarmendu da aurten ere UEMAKen Bertatik Bertara kanpainarekin.

Udalerriko haur eta gaztetxoek aisialdirako eskaintza zabala izan dute udan

Udako oporraldi sasoian aisialdiaz gozatzeko aukera desberdinak baliatu dituzte Debako eta Itziarko haurrek eta gaztetxoek. Bereziki garrantzitsua izan da aurtengoa, osasun pandemiaren gogorrena pasata -adituek esaten dutenez- iaz baino lasaiago aritzeko aukera izan baitute. Eta haur eta gazteek behar izan dute inoiz baino gehiago aisiaz gozatzeko espazioa.

Ohi bezala, udaleku irekietan parte hartu dute HH3tik LH6ra arteko mailatan ari diren haurrek Deban eta Itziarren

egindako eskaintzari esker. Kolore Anitzek dinamizatutako udalekuetan Deban, eta Girotuz udalekuetan Itziarren. Aisiaz gozatu dute modu aktibo, parte-hartzaile, sortzaile, gizarteratzaile eta osasungarrian. Kirola, antzerkia, musika, jolasa... horiek guztiak egin dituzte.

Kirolari zuzenean lotutako ekintzak ere ez dira falta izan. Izan ere, Debako Udaleko kirol sailak hainbat ikastaro eskaini ditu. Bost eguneko modalitate ezberdinetako ikastaroak izan dira, esaterako, aurtan, surf skate-a egiteko aukera izan dute gaztetxoek eta SUP arraun surfa egin dutenek BIG SUP saioa ere jaso dute.

Kiroldegian ere, 12 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzendutako programa berezia eskaini da, eta besteak beste, Spinning-eko, krossfit-eko eta Pilateseko saio gidatuekin gozatu ahal izan dute.

Gaztelekuak ere adin tartearen arabera antolatutako taldeei ekintza, irteera... desberdinak eskaini dizkie. 2020-2021 ikasturtean 10.000 erabiltzaile izan ditu Debako Gaztelekuak, eta pozik agertu ziren uda hasieran bertako begiraleak, eta gogotsu ekin zioten uda sasoiari.



Niñas, niños y jóvenes de Deba e Itziar han podido disfrutar de una amplia y variada oferta de ocio durante el verano.

Debako eta Itziarko klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko plana egingo da



Se va a realizar una encuesta, con el fin de conocer la percepción de todas las personas del municipio y los temas prioritarios a considerar en la elaboración del Plan.

Debako Udalak eta Itziarko Auzo Udalak abian jarri dute Klima eta Energia Plana egiteko proiektua. Plana uda hasieran hasi zen, eta udalerrriaren plangintza estrategikoaren esparrua izango da, klima-aldaketa arintzearen eta horretara egokitzearen arloan tokiko ekintza egituratzeko.

Prozesu horretan ezinbestekoa da herritarren inplikazioa. Horretarako, inkesta egingo da pertzepzioa eta plana egiteko kontuan hartu beharreko lehentasuneko gaiak ezagutzeko. Inkesta hori on-line egingo da batez ere (udalaren webgunean dago eskegita), baina paperean betetzeko aukera egongo da, herritarren arretarako Debako eta Itziarko bulegoetan eta Debako liburutegian egongo baita eskuragarri.

Inkesta hau lehen urratsa da herritarrek energiaren arloan dituzten kezka eta sentsibilizazioa ezagutzeko, eta horretan oinarrituta prestakuntza-saio batzuk antolatzeko. Eta jendea energia arloko on-line aholkularitza-zerbitzu berrira (sistema energetikoak, argi-fakturaren analisisa eta energia berriztagarrien instalazioa) kontsulta pertsonalizatuak egitera animatzeko. Udalak, Debegesarekin batera, kontsulta horiek hilaren amaieran jarriko ditu martxan, urtea amaitu arte.

Klima eta Energia Plan honek bat etorri beharko du EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legearekin, eta toki-erakundeentzat ezarritako eskakizunak betetzea ahalbidetu beharko du. bat etorriko da Agenda 2030en Garapen Iraunkorreko Helburuekin.

Azken planak, Udalak, Itziarko auzo udalak eta herritarrek, oro har, gauzatu beharreko zenbait ekintza ezarriko ditu, EAEko klimaren eta energiaren arloko erreferentziatzeko araudian eta politiketan ezarritako helburu kuantitatiboak betetzeko. Hau da, udalaren energia-kontsumoa % 40 murriztea eta energia berriztagarria sortzeko gaitasuna handitzea.

Plana egiteko, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailaren diru-laguntza bat dugu, bai eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Sailarena ere.

Urtea amaitu baino lehen plan hori zehaztuta egotea aurreikusten da.



El Ayuntamiento de Deba llevará a cabo diversas iniciativas para dar a conocer a Tene Mujika y su trabajo

El 16 de septiembre se han cumplido 40 años del fallecimiento de la debarra Tene Mujika. El Ayuntamiento de Deba va a realizar una serie de iniciativas para dar a conocer su persona durante el año del aniversario.

El Ayuntamiento de Deba lleva años convocando, primero el premio literario Tene Mujika, y posteriormente la beca del mismo nombre para la publicación de libros que investigan la historia reciente de nuestro pueblo, en colaboración con la editorial Elkar. La convocatoria de este año ya está en marcha. El plazo de entrega de trabajos finaliza el 9 de diciembre. La información está disponible en la web municipal www.deba.eus.

La imagen y obra de Tene Mujika, como ocurre con las mujeres de su época, no es tan conocida como la de los hombres de esa misma época, por lo que se ha decidido enmendarlo en la medida de lo posible haciéndole un reconocimiento.

Han coincidido en el tiempo la realización de varios trabajos de diferentes personas sobre el mismo tema: Tene Mujika, y han decidido aunar fuerzas.

Se ha inaugurado una exposición con las portadas de los trabajos ganadores del premio literario Tene Mujika y de la beca de investigación de historia reciente. La cual se podrá visitar en el claustro de la iglesia de Santa María hasta el 3 de octubre.

Por otro lado, el mismo día del aniversario de la muerte de Mujika se celebró una mesa redonda, donde las autoras *Tene Mujika*, *emakumea* eta *Tene Mujika udazken argitan* Nekane Goikoetxea y Cira Crespo, respectivamente, presentaron un adelanto de sus trabajos. En la presentación participaron también Josune Zabala, del Gobierno Vasco, para explicar los pormenores de la beca Berdintzen; Lorea Agirre, directora de Jakin, para explicar el proyecto de digitalización de los trabajos de estas mujeres. La charla estuvo conducida por Itziar Irizar, teniente de alcalde del Ayuntamiento de Deba y concejala de igualdad y políticas feministas. A través de esta charla acercaron al público la persona de Tene Mujika.

Mujika trabajó en diferentes ámbitos, y en otoño e invierno de 2021 se programarán actividades relacionadas con esos ámbitos, como el teatro, el cuento, la poesía...

En relación a la beca que conceden en colaboración el Ayuntamiento de Deba y la editorial Elkar para investigar la historia reciente, en los próximos meses se llevarán a cabo diversas iniciativas.

En relación a la beca, el 28 de este mes se ha presentado el libro del ganador de 2019 Iñigo López Simón *Bilboko etxola batean*.

Por otra parte, en primavera y otoño de 2022 se presentarán los libros de los dos trabajos que premió el jurado en la convocatoria de la beca de 2020. *Ezkutatutako eskuak: emakume langileak gerra ondoko Euskal Herrian*; y *Amatasun feminista* de Erika Lagoma y Estitxu Fernández. Ambos trabajos están relacionados con la variable de género.

“Tene Mujika bekan parte hartzeko lanak abenduaren 9ra arte bidal daitezke”



Nekane
Goikoetxea
Agirre
(Deba, 1970)

“Tene Mujikaren bitartez euskal gizartearen bilakaera ezagutu liteke”

La profesora de Humanidades y Ciencias de la Educación de Mondragon Unibertsitatea Nekane Goikoetxea Agirre, ha realizado in trabajo de investigación sobre Tene Mujika. En 2018 realizó un trabajo sobre la historia social de euskera de Deba, con el descubrió que no conocía demasiado sobre la figura de Mujika y que sin embargo había mucho por descubrir. Reivindica que se le otorgue a la voz de las mujeres de la época de Mujika el mismo valor que al de los hombres, entre otras cosas.

“Amamek bazekiten nor zen Tene eta gerraostean alaba gazteak bidaltzen zituzten Mujikaneko denda ostera euskaraz alfabetatzera.”

Tene Mujikari buruzko ikerketa lana egin duzu. Nola sortu zitzaizun ideia, eta aukera?

Debako euskararen historia soziala landu genuenean Iñigo Ramirez de Okariz lankideak eta biok 2018an argi geratu zitzaidan ezer gutxi nekiela Mujikaren inguruan eta bazegoela zer arakatua.

Bestetik, sumatzen nuen Teneren biografiak euskararen aldeko politikari buruz eta genero-sistemari buruz gogoeta egiteko aukera ematen zidala. Eusko Jaurlaritzak deituta parte hartzen ari nintzen euskara eta generoa uztartzeko batzorde instituzional batean eta genero-gaietan sakontzeko gogoia nuen. Nire ikerlana izan da arloari egin nahi izan diodan ekarpena, bi ezagutza arloak batuz nolabait.

Bere garaia kontestualizatu dut eta berak idatzitakoak garaian garaiko mugimendu sozialen argitan aztertu ditut. Lan gehienak argitaratu zituen 36ko gerra aurretik. Gerraostean, erbestetik itzulita, bere idazlanak urritzen direnez herritarren oroimena erabili dut Teneren arrastoari jarraitzeko. 9 elkarrizketa egin ditut eta azken Tene herritar horien lekukotzarekin eraiki dut nagusiki. Askok zor diet elkarrizketatuei.

Bere lana ez da oso ezaguna (maiz garai hartako emakumeekin gertatzen den moduan). Zer ikasi duzu Teneri buruz?

Pertsona interesgarri bat aurkitu dut, ertz asko dituen. Mujikaren bitartez euskal gizartearen bilakaera ezagutu liteke: erantzun abertzalearen sorrera, emakumeen rola, apaizgoaren garrantzia, euskarari atxikitzen zitzaion funtzio soziala, belaunaldi arteko desadostasunak e.a. Ezagutza gutxi daukagu gehienok 36ko gerraurreko euskal gizarteaz, ezagutza txikiagoa garaiko kultur bizitzaz eta zer esanik ez emakumeek osatutako taldeez. Nik galderen bila jo dut azken horiengana. Euskal ikasketek ikuspegia gaurkotu behar dutela uste dut eta emakumeen ikuspegitik egitea aukera ona da.

“Euskal ikasketetan dihardugun arteko eztabaida sustatu nahiko nuke gizonen hitzak ez dezan balio handiagoa izan, galera handia baita guztiontzat. “

Arlo desberdinetan aritu zen lanean: politika, euskara... Zeintzuk dira bere ekarpenak?

Deban Tene gogoratzen da Mujikaneko dendako emakume zahar hura bezala baina badago askorengan pertsona garrantzitsu izan zenaren kontzientzia. Amamek bazekiten nor zen Tene eta gerraostean alaba gazteak bidaltzen zituzten Mujikaneko denda osterara euskaraz alfabetatzera berarekin. Amamek bazekiten Emakume Abertzale Batzako kide izan zela (ez ahaztu 25.000 afiliatu izatera heldu zirela), Gipuzkoako federazioko lehendakaria izan zela, 500dik gora lan argitaratu zituela prentsan emakumeak rol horietan aritzen ez ziren garaian. Emakume abertzale askoren erreferente intelektuala izan zen eta guztiaren gainetik berak bere burua idazletzat zuela esango nuke, belaunaldi bateko kide. Bestetik, euskararen aldeko politika emakume abertzaleen esku zegoen nagusiki eta belaunaldi horrek jarri zituen herriz herri II. Errepublika garaiko hizkuntz politikaren zutabeak. Emakumeen izenak inbisibilizatu egin dira, ordea.


Hemendik aurrera zer egin nahiko zenuke lan honekin? Nola dibulgatu?

Lana Eusko Jaurlaritzaren Berdintzen izeneko bekari esker egin ahal izan dut eta argitaratze bidean jarriko dugu. Ondoren, erakunde ezberdinetako kideak bildu nahiko

nituzke arnas luzeagoko ekimen batera. Ciria Crespo historialari katalana nire ikerlanaren osagarria izango den beste ikerketa bat egiten dihardu Mujikaren inguruan Debako Udalak lagunduta. Bidean lagunak egin gara eta elkarlanean dihardugu. Pentsatu izan dugu ideia polita dela emakume horien lanak Ikertu, bere obra publiko jarri eta jendarteratzeko ekimen zehatzak egitea herrietan. Debako Udala ere badabil hainbat kultur ekitaldi prestatzen datorren urterako aurtengo irailean 40 urte betetzen baitira Tene zendu zela. Deban has liteke bidea eta gero beste herrietara zabaldu, Zumaiara Julene Azpeitiarekin, Bilbora Sorne Unzuetaekin, Alozera Madalen Jauregiberrirekin, Sarara Mayi Ariztiarekin, Mañarira Errose Bustintzarekin, Donostiara Katalina Elezegirekin, Mungiara Julia Gabilondorekin e.a.

Zer lortu nahiko zenuke?

Tene Mujika belaunaldi bateko kidea izan zen eta beste idazle asko daude ikerketa zain. Interesgarria litzateke taldea osatu zuten idazleen lan sakabanatuak digitalizatu eta publiko jartzea. Nik Jakin aldizkariari esker lortu ditut Mujikaren lan guztiak, Jakinek digitalizatuta zeuzkalako baina ez daude edozeinen eskura. Bigarrenik, ikertu egin behar dira eta gaurtik irakurri. Nire lanean saiatu naiz kritikoa jokatzen gaurko feminismoarekin, emakume abertzale eta kristau hauek gaurko idealetatik urruti sentitzen baitira feminismoan, baina hortik gatoz. Eta guztiaren gainetik euskal ikasketetan dihardugun arteko eztabaida sustatu nahiko nuke gizonen hitzak ez dezan balio handiagoa izan, galera handia baita guztiontzat. Ez da kasualitatea Tene Mujikaren lanak argitaratu gabe egotea. Emakume hauekiko begirada paternalista izan da nagusiki eta sinistuta nago gaurko gogoetarako interesgarriak direla. Munta handiko andrez ari gara.



Elvira Garrido Fundazioak Debako Udalarekin elkarlanean eskaintzen duen ludoteka zerbitzuak harrera ona izan du

Laster urtebete egingo du baliabide urriak dituzten haurrei zuzendutako ludoteka zerbitzuak. Baliabide ekonomikorik ez duten, sare sozialik edo familia-sarerik ez duten familiei, hauek lanean dauden bitartean edota beste premiazko egoeraren bat dutenean, haurren zaintzan laguntzea du helburu zerbitzuak. Elvira Garrido Fundazioak eskaini eta Debako Gizarte Zerbitzuek bideratzen dute. Deba eta Itziarko bi eta hamaika urte bitarteko haurrak dituzten, eta lehen aipatutako baldintzak betetzen dituzten familiei dago bideratuta.

15 haur egon dira ikasturtearen zehar. Umeak gertuagotik ezagutu eta beraien beharrak zeintzuk diren aztertzeke aukera izan dute hezitzaileek. Horrelako zerbitzuek garrantzia handia dute umeen ongizate fisiko, emozionala eta soziala bideratzeko. Lanean dauden bi hezitzaileek babes, egonkortasun eta sostengu handia eskaintzen diete, eta gurasoek esker onez jaso dute zerbitzua.

Gaztelekuaren gaineko lokala atondu zuen iaz Udalak, haurrak artatu ahal izateko. Aire librean ere egiten dituzte ekimenak.

Oinarri batzuen baitan lan egiten dute proiektuan parte hartzen ari diren pertsonak, proiektuaren proposamenak berak jasotzen duenez. “Osasun fisiko zein emozionala bermatzea da helburua. Horretarako, elikadura osasuntsua eskaintzen zaie, higiena zaintzen lagundu, eskolako lanak egiten ere laguntza izaten dute. Baina, ez hori bakarrik, haurren adimen emozionala ere zaintzen da, baliabide gutxi dituzten haurrak ere hazi eta hezi daitezen osasuntsu, seguru eta baliabide emozionalerik ongi hornituta”, azaldu zuen Aritz Larrañaga Ongizate politiken zinegotziak ekimena abiatu zenean.

El servicio de ludoteca que ofrecen en colaboración la Fundación Elvira Garrido y el Ayuntamiento ha dado servicio a 15 menores en su primer curso.

Nolako merkatua nahi dugun adostu eta horretarako urratsak zehazten hasiko gara

'Gipuzkoako azoken sarea' deritzon proiektuaren lanketak hainbat emaitza eman ditu dagoeneko. Proiektu horren helburua da azoka bakoitzaren etorkizunerako erronkak eta ekintza plana lantzea. Lanketaren ardatzak azoka osatzen duten eragile ezberdinen partaidetza, eta herri bakoitzeko azokaren beharretara egokitzea izan dira. Gipuzkoako 16 herrik parte hartu dute, tartean Debak.

LANDAOLA elkarteak (Gipuzkoako Landa Garapenerako Elkarleen Federazioa), Eusko Jaurlaritzaren Erika Fundazioaren bidez, eta udalen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, gure udal ekonomiaren, kulturaren eta tradizioaren zati garrantzitsu bihurtu diren gure udalerrietako azokak bezalako zirkuitu laburrak dinamizatzeko eta bultzatzeko egitasmoaren baitan kokatzen da Deban aurrera eraman dugun lanketa.

Prozesuak hainbat urrats egin ditu, eta dagoeneko eman ditu emaitza batzuk. Osatu den proposamenak ekintza plan bat ere jasotzen du 2021-2024 urteetan gauzatzeko. Aldaketa batzuk ere egin dira dagoeneko. Esaterako, Merkatu Txikia maiatzetik urrira berriz martxan jartzea, eta herrian puntu desberdinetan sakabanatuta zeuden

ekoizleak elkartzea. Azken honek hainbati errezeloa sortzen bazion ere, pixkanaka ari dira ekoizleak Estalitako Pasealekura gerturatzen, eta dagoeneko gustura daude bertan. Hainbat herritarrek ere poza adierazi diote Udalari egindako urratsagatik, itxura “hobea” ematen duelako merkatuak.


Lanketa partekatua izan da, administrazio, eragile, baserriar eta herritarrekin. Herritarren ekarpenak galdetegi bitartez jaso dira, prozesuan egin den momentuan jendea biltzeko baldintza egokirik ez zegoelako osasun egoeraren ondorioz.

Nerea Arrizabalaga zinegotziaren esanetan, “hasieratik kokalekuarena desadostasunerako elementua izan da, baina oraingoz herrian daukagun leku duinena Estalitako Pasealekua da. Neguari begira, eta atseginagoa izan dadin, nola itxi aztertu behar da, eta sabaia konpondu egin behar da, izan ere, orain dela 15 urte egindako zaharberritzean ez zen ukitu eta hezetasuna dago.”

Urrian batzorde edo mahaia martxan jarriko da. Herritar, ekoizle, udal eta landa garapen elkarteak nolako merkatua nahi dugun, eta hori lortzeko pausoak zehazten hasiko gara.



“La ubicación ha sido motivo de desacuerdo, pero por el momento el lugar más digno para el mercado en el municipio es el Paseo Cubierto.”



El gasteiztarra Eduardo Alsasua ganador del concurso de pintura al aire libre de este año

El 11 de septiembre se celebró la 52ª edición del Concurso de Pintura al aire libre de Deba. Se trata de un certamen que organiza el Ayuntamiento de Deba con la colaboración de la Fundación Cárdenas y la Asociación Artística Haitz Haundi, en el que han participado pintores/as mayores de 16 años. El primer premio, de 800 euros, ha sido para el gasteiztarra Eduardo Alsasua La

primera clasificada de la localidad no premiada ha sido Nora Movellán, que ha recibido 250 euros. Las obras han estado expuestas en el salón de plenos del Ayuntamiento hasta el 19 de septiembre. En total se han repartido ocho premios, cuatro de ellos entregados por el ayuntamiento y otros tantos por la Fundación Cárdenas.

Udalerriko ikasleek hainbat eskaera egin dizkiote udalbatzari Eskolako Agenda30aren lanketan

Aurtengo ikasturtean ekoizpen eta kontsumo arduratsuen gaia landu dute ikasleek Eskolako Agenda 30 programaren bitartez. Aurten hautatutako gaia lantzeko hainbat ekintza egin dituzte ikastetxeetan. Behin egoeraren diagnostikoa eginda, ikasleek Udalbatzarrean, aurtengo bideo bidez, aurkeztu dituzte ateratako ondorioak, baita euren eskaera eta proposamenak ere, herri jasangarria eraikitze aldera. Halaber, aurtengo ikasleek hainbat

konpromiso hartu dituzte birziklapen tasak hobetzeko eta edukiontzi ezberdinak beharren arabera kokatzeko. Ikasleek Udalari egindako ekarpenetatik azpimarragarrienak hauek izan dira: Herriko espazio estaliak garbiago mantentzea; nekazaritza ekologikoa bultzatzea; bertako produktuei publizitatea egitea, kontsumo lokalari eta ekologikoari laguntzeko; eta herri baratzak sortzea.

Legealdiaren lehen bi urteen balorazio positiboa egin du Udal Gobernuak

Ekainean heldu da legealdia bere erdira. Balantzea egiteko unea. Hasierako hilabeteetan udal barruko lanek eta antolaketak pisu handia izan bazuen ere, Gilen Garcia alkateak egindako balorazioan esan zuenez, “aurrera begiratzen hastea zegokigun, eta hala egin genuen, eta horretarako Gobernu Plan bat osatu genuen bost alor nagusitan banatu genuena eta bost alor horien barruan 100 neurri zehatz jarri genituen.”

Azken 15 hilabeteek berez intentsua den udal jarduna are intentsuagoa bihurtu dute Udal Gobernuaren ustez. Hala ere, “iparrorratza bestelako Deba bat lortzea zen, Deba feminista, euskaltzalea, jasangarria, parte-hartzailea, eta zentzu horretan urrartek garrantzitsuak egin ditugula esango nuke”.

Pertsonak erdigunean jarriz lan egin du Gobernuak pandemian. Herritarrengandik gertu egoteko bideetan ere jarri du indarra: parte hartzea sustatuz, edo herritarrekin komunikazio zuzena lantzeko bideak jarriz, esaterako.

Exposición de la reconstrucción del puente de Deba

La madrugada entre el 4 y 5 de julio de 2018, la pila central del puente de piedra de Deba sufrió un descenso repentino, que puso en marcha la fase de emergencia y diagnóstico para poder asegurar la conservación, estabilidad y seguridad del mismo. Ya han comenzado las obras de

reconstrucción, que avanzan según lo previsto, y se puede seguir el proceso a través de la exposición instalada en julio en el Paseo Anes Arrinda, a pie del puente.

La exposición nos introduce en el apasionante mundo de los puentes de fábrica, esos puentes que han tejido la historia de la humanidad desde el inicio de los tiempos. La exposición propone un recorrido que abarca desde la figura de su proyectista (Jose Antonio

Cortazar), su historia, las fases de emergencia, las fases de la reconstrucción actual, las características constructivas de los puentes de piedra y los puentes de piedra catalogados de Gipuzkoa. Toda esta información se completa con información multimedia y una espectacular maqueta del mismo puente de Deba, construido en piedra y que desgrana, a escala, las técnicas constructivas de los puentes de fábrica.



Deba
ETORKIZUNA ORAIN

¿Tienes alguna propuesta o sugerencia para el ayuntamiento?

Iradokizunik, proposamenik baduzu udalari egiteko?

Kalean konpondu beharreko zerbait ikusi duzu?

Kezkaren bat duzu?

¿Te preocupa algo?

¿Has visto algún desperfecto que arreglar en la calle?

ESAN UDALARI

www.deba.eus

Karst eta haitzuloen nazioarteko urtea Geoparkean

2021 urtea Karst eta Haitzuloen Nazioarteko Urtea izendatu du Nazioarteko Espeleologia Batzordeak. Karst arroka disolbagarria (normalean kareharriz) osatua dagoen topografia mota bat da, eta paisaia urak arroka disolbatzen duenean sortzen diren egiturek osatzen dute. Urtean 150 milioi pertsonak baino gehiagok bisitatzen dituzte munduko haitzuloak. Hori horrela, lur azpian dagoen unibertsoari seigarren kontinentea deritzo. Euskal kostaldeko Geoparkeak bat egin du nazioarteko urte honekin; izan ere, Geoparkean Karst eta kobazuloen erakusgai geologiko, ekologiko eta kultural ederrak ditugu.



1. ARNO. GEOPARKEAREN PIRAMIDEAK.

Arian-arian, gure mendietako kareharri gogorra disolbatu egiten du euria 500 metrora gorako piramide perfektuak zizelkatu arte.

2. SESIARTE MENDIKO LAPIAZA.

Gure mendien azala zimurtuta dago eta milaka kanal eta haustura ditu, urak kareharria disolbatu eta lur azpira sartzeko. Gure geoparkean, normalean, lapiaz hauek lurzoruz eta landaretzaz estalita egoten dira.

3. LASTURKO POLJEA. GEOPARKEAREN HARAN ITXIA.

Lasturko harana 3 kilometroko luzera eta 300 metroko sakonera duen zulo handi bat da. Haranaren hondoan, urak desegin duen kareharrizko bolumen handi horren buztin disolbaezinak metatzen dira.

4. DOLINAK. LUR AZPIKO INBUTU NATURALAK.

Azaleko urak beti bilatzen du beheranzko biderik errazena. Hain da horrela, non harkaitza lur bigunez estalita dagoen tokietan, urak inbutu handiak marrazten dituen lur azpira bidea hartzeko. Inbutu hauek dolinak dute izena. Lasturko haranean daudenak 75 metroko diametroa eta 25 metroko sakonera dute!

5. URA. GEOPARKEAREN ALT XOR EZKUTUA.

Euria egiten duenean, mendiguneek euri ura zurgatu eta gordetzen dute eta poliki-poliki urte osoan zehar askatzen dute dozenaka iturburuetan. Ateratzen denean gure ibaiak elikatzen ditu eta hari esker gure baso eta belardieak bizirik mantentzen dira.

6. AIXA. GEOPARKEAREN LEIZE HANDIA.

Geoparkearen lur azpia galeria eta amildegiz osaturiko labirinto erraldoi bat da. Gure baserri, baso eta mendien azpian ilunpetan eta isilik bizi den mundu paralelo bat dago. Aixa – Ermitia – Ibarrengo sistemak 50 km-tik gorako hedadura du eta penintsulako 10 sistemarik luzeenetako bat da.

7. URAREN ESKULTURAK.

Haitzulo batean sartzea beti da esperientzia berezia: dena geldi, ur-tantak... Milaka urtetan ur horrek forma oso bereziak sortzen ditu. Tanta horiek kareharrian disolbatu duten kaltzio karbonatoa askatzen dute estalaktitak, estalagmitak, zutabeak, banderak, goursak eta bestelakoak sortuz.

8. KLIMA KUTXA BELTZA HAITZULOETAN.

Haitzuloak gainazalean gertatzen denaren erregistrorik onenak dira. Hor barruan dena ondo gordetzen da, baita iraganeko klima ere. Praileaitz haitzuloko estalagmita bati esker, azken 10.000 urteetako klima berreraiki ahal izan dute EHuko ikerlariek.

Ohiko ikastaro eskaintza zabala martxan da Itziarren denboraldi berriarekin batera



Txalaparta ikastaroa da aurtengo berrikuntzetako bat Itziarren. Idoia Zabaleta / Foku.

Ikasturte berriarekin batera ikastaro eskaintza berria plazaratu dute Itziarren ere. Hainbat dira aspalditik bertan herritarrei eskaintzen zaizkien aisialdi aukerak, eta azken urteetan sendotuz joan da eskaintza zabala, ehunka herritarrek izena eman eta parte hartuz urtean zehar. Hein handian Burugorri Martxan ekimenak burututako lanari zor zaio halako dinamizazioa. Debako Udalak 2014an Burugorri eraikina bereganatu zuenetik, bertan kokatu dira aisialdi, ikastaro eta kultur ekintza gehienak, lehendik herrian sakabanatuta zeuden ohiturak bateratu eta bestelako proposamenak osatuz.

Burugorri Martxan ekimenak egindako bidea aitortu, hartu eta jarraipena emanaz Itziarko Auzo Udalaren izenean kudeatuko da aurrerantzean ikastaro eskaintza. Honela, baliabide publikoak gehituko zaizkio eskaintzari, eta horregatik ikastaroetan matrikulatzeko argitaratutako kuota prezio egokitan jarri dira.

Ikastaroen eskaintza ugalduz joan den heinean, dagoeneko txiki geratua zen Burugorri eraikina. Horrela, zenbait aktibitatek beste lekuetan izan dute egoitza. Erabilera

hauentzat lekua ahalbideratzeko, herriko plazan kokatua dagoen apaizetxearen ekialdeko partea alokatu eta modu erregulatuan baliatzeko hitzarmena sinatuko du laster Itziarko Auzo Udalak gotzaindegiarekin.

Frantsesa, ingelesa, bertsolaritza, euskal dantzak, trikitia, panderoa, eskulanak eta zaharbertitzea, egur tailla, txalaparta, antzerkia, puntua, jostintza, senti dantza umeentzat yoga, hipopresiboak, *Stretching balance*, *Step fitness* eta egokitzapen fisiko ikastaroez osatzen dute ikasturte honetako eskaintza, hain zuzen ere. Hauetatik gehienak lehendik urtez urte egindako borondatezko lanetik datoz, eta finkatuta dute urteroko partaidetza.

Itziarko Auzo Udaletik garrantzi berezia eman zaio ikasturte berrian ere eskaintza zabala mantentzeari, “herritarren topagune bilakatu dira jarduera horiek Itziarren, kalebarrena suspertu eta pertsonen arteko harremanak trinkotuz”, arduradunen hitzetan. Bestetik, azpimarratu zuten pandemia garaia guztion lehentasunak aldatu dituela, “hainbat plangintza atzeratu eta zaintza erdigunean jarriaraziz”.

ehbildu



JARRAI DEZALA ERROTARRIAK BIRAKA

Metafora irudi erretorikoa da, bi kontzepturen, irudiren, ideien (edo abarren) artean egiten den antzekotasuna, hain zuzen. Udala, esaterako, errotarriarekin konpara daiteke. Hasieran kostatzen da birarazten, baina behin martxa hartuta errazago eusten dio erritmoari, nahiz eta etengabe eragin behar zaion.

Legealdi hasieran, 2019ko ekainean, hauteskundeetan sortutako olatua aprobetxatu genuen udalerriko errotari bultzatuz egiteko, Udaleko errotarria martxan jartzeko. Gogoz, ilusioz, konfiantzaz, indarrez, babesez, ... betetako olatua izan zen, dudarik gabe.

Bi urte hauetan aurreko legealditik zetozen gaiei jarraipena eman eta EH Bilduren asmoak gauzatzen edota martxan jartzen dihardugu. Horretarako ezinbesteko bide-orri izaten ari da 2019ko Gobernu Plana.

Noizean behin, espero gabe, harri txintzarrek trabatzen dute errotarria, baina aurrera goaz, elkarlanaren, euskararen, kulturaren, elkartasunaren, berdintasunaren usaina atera nahi diogulako errotarriari.

Legealdi erdia igaro denean, udalerrri ikuspegi normalizatuagoa ari da errotzen, Zumardiko partaidetza prozesua abiatzeaz da, udalerrri irisgarriagoa bilakatzen ari da, aisialdia modu seguruan berreskuratzen ari gara, ... jarrai dezala errotarriak biraka!

La metáfora es una imagen retórica, una similitud entre dos conceptos, imágenes, ideas. El ayuntamiento, por ejemplo, se puede comparar con la rueda del molino. Al principio cuesta hacerla girar, pero una vez en marcha es más fácil mantener el ritmo, aunque hay que empujarla constantemente.

A principios de legislatura aprovechamos la ola generada en las elecciones. Fue, sin duda, una ola llena de fuerza, ilusión, confianza, ... Estamos llevando a cabo y/o poniendo en marcha nuestras expectativas. Para ello, el Plan de Gobierno está siendo la hoja de ruta imprescindible.

De vez en cuando, de forma inesperada la rueda se atasca, pero vamos avanzando, porque queremos sacar la esencia de la colaboración, del euskera, de la cultura, de la solidaridad, de la igualdad...

A mitad de la legislatura, el municipio está arraigando una visión más normalizada, el proceso participativo de la Alameda está en marcha, se está convirtiendo en un municipio más accesible, se está recuperando el ocio de forma segura, ... ¡que siga girando la rueda!

“ZURI GUZTIAK EZ DIRA IRIN”

Legegintzaldia hasi zenetik 2 urte igaro dira, eta honen balorazioa eta hausnarketa integrala egiteko une aproposa dela deritzogu. Egungo gobernu-taldeak, hainbat komunikabideetan, oso balorazio positiboa egin du eta, gure ustez, balorazio hori desitxuratu samarra eta partziala da. Hori dela eta, Debarren Ahotsak, udaletxean izandako esperientziatik abiatuta, gure balorazioa eta beharrezkotzat jotzen ditugun hobekuntza-alderdiak azaldu nahi ditugu. Ildo horretan, Hirigintza eta Barne Errejimeneko batzordeak modu eraginkorrean aktibatzeak premia azpimarratu nahi dugu. Zehazki, Barne Errejimeneko batzordea, pertsonaleko gai guztiak jorratzen dituenak, lau hilabete baino gehiago daramatza egin gabe (azken bilera otsailaren 25ean egin zen). Konpondu beharreko premiazko gaiak ez dira ondo kudeatzen ari; hala nola, orain dela urte batzuk erretiratutako Udaltzaingoaren eta Brigadaren lanpostuak eta ezta ere, duela gutxi erretiroa hartu duen Kirolegiko arduradunarena ere. Bestalde, hirigintza batzordeak ez dira legegintzaldiaren hasieran adostutako maiztasunarekin deitzen, eta guzti honek eragin zuzena du obra txikiarako lizentziak ematerakoan, proiektu garrantzitsuen kudeaketan (udal-hilerria irekitzea) eta etxebizitzaren arazoari aurre egiteko irtenbideak bilatzeko konpromisoan. Jakitun gara legegintzaldiaren bide erdian gaudela, eta horregatik azpimarratu nahi dugu, beti ere ikuspegi kritikoa, eraikitzaile eta lankidetzan oinarrituta, lanean jarraituko dugula Udala Gobernuak egungo arazoei erantzun bat eman diezaion.

“NO ES ORO TODO LO QUE RELUCE”

Tras 2 años del inicio de la legislatura, nos encontramos en un momento propicio para poder realizar una valoración y reflexión integral del desarrollo de la misma. El equipo de gobierno actual ha compartido en diferentes medios de comunicación una valoración exageradamente positiva, y a nuestro entender, un tanto distorsionada y parcial de este periodo, por lo que desde Debarren Ahotsa, partiendo de nuestra experiencia en la vida municipal, queremos valorar y aportar aquellos aspectos de mejora que consideramos necesarios. En este sentido, queremos remarcar la necesidad inminente de que se dé una activación eficaz de las comisiones de Régimen Interior y de Urbanismo. Concretamente la comisión de Régimen Interior, que trata todos los temas de personal, lleva más de cuatro meses sin celebrarse (última reunión 25 de febrero). Los temas urgentes a resolver, como las jubilaciones de hace años de los responsables de la Policía Municipal y de la Brigada, y recientemente del responsable del Polideportivo, no se están gestionando. Por otra parte, las Comisiones de Urbanismo no se convocan con la periodicidad acordada en un inicio de la legislatura, repercutiendo en las largas listas de espera en la concesión de licencias de obras menores, en la gestión de proyectos relevantes (apertura del Cementerio Municipal) y en un compromiso para buscar soluciones para actuar sobre el problema de la vivienda en Deba. Siendo conscientes del tiempo que queda de legislatura, desde Debarren Ahotsa seguiremos insistiendo desde una visión crítica, constructiva y colaborativa para que desde el Gobierno Municipal se dé respuesta a los



2 URTEKO LEGEGINTZALDIA

Legegintzaldiko bi urte bete dira, eta denbora honetan, EAJ-PNVtik Debako herriak premia behar dituen politikak aktibatzen eta proiektuak garatzen saiatu gara (estrategia ekonomikoa, turistikoa, hirugarren adinekoentzako egoitza, gaztedia...).

Orduz geroztik, estrategikotzat eta beharrezkotzat jotzen genituen ekintza eta proiektuetan konprometitu gara eta aktiboki parte hartu dugu.

Alde batera utzi ditugu alderdiaren interesak, herritarren interes komunean aktiboki lan egiteko. Talde gisa dugun nortasunaren parte den jarduteko modu hori ez dute ondo hartu ez gobernu taldeak, ez gainerako zinegotziek.

Batzuen eta besteen erantzun gisa jaso dugu gure erabakiak zalantzan jartzea eta fiskalizatzea eta baita udal-kudeaketan parte hartzea saihesteko saiakeraren bat edo beste ere.

Bakoitzak jakingo du zer eginkizun hartzen duen udal-arkuan, eta zer eragiten duen bere erabakiekin eta babesekin. Baina auzitan jarri beharko litzateke ea ekintza horien emaitzak onak diren debar guztiontzat. Gure kasuan, argi dugu, eta aurrekontu eta politika batzuen aldeko erabakiak hartu ditugu eta beste batzuen aurka azaldu gara, ez direlako ez egokiak eta ezta aproposak ere.

Erantzukizunean eta guztien ongiaren irizpidean oinarritu izan ditugu beti gure erabakiak, eta horrek konfiantza eta indarra ematen digu orain arte bezala jarraitzeko.

Debak behar duelako eta EAJ-PNV beti egongo delako ildo horretan.

2 AÑOS DE LEGISLATURA

Se cumplen 2 años de legislatura, en la que desde EAJ-PNV hemos intentado activar políticas y desarrollar proyectos que el pueblo de Deba necesitaba con urgencia (desarrollo económico, estrategia turística, residencia 3ª edad, juventud...).

Desde entonces, nos hemos comprometido y hemos colaborado activamente en acciones y proyectos que entendíamos estratégicos y necesarios.

Hemos dejado de lado intereses de partido para trabajar activamente en el interés común del ciudadano. Sin embargo esta manera de actuar, que forma parte de nuestra identidad como grupo, no ha sido bien recibida por el equipo de gobierno ni por el resto de concejales.

De unos y de otros hemos recibido como respuesta, el cuestionar y fiscalizar nuestras decisiones y algún intento de evitar nuestra participación en la gestión municipal.

Cada uno sabrá el papel que toma en el arco municipal y lo que propicia con sus decisiones y apoyos, pero lo que se debería cuestionar es, si los resultados de estas actuaciones son positivos para todas y todos los Debarras. En nuestro caso, lo tenemos claro y al igual que hemos tomado decisiones a favor de algunos presupuestos y políticas, nos hemos opuesto rotundamente a otras por considerarlas poco adecuadas y nada oportunas. Siempre hemos basado nuestras decisiones en el sentido de la responsabilidad y el criterio del bien común y eso nos da confianza y fuerza para continuar de la misma manera.

Porque Deba lo necesita y porque EAJ-PNV estará siempre dando la cara en esa línea.



UDAL GOBERNUAREKIN HARREMANETAN JARTZEKO BIDEAK

GILEN GARCIA BOYRA

ALKATEA

HIRIGINTZA eta ETXEBIZITZA
HERRITARREN PARTAIDETZA

alkatea@deba.eus

ITZIAR IRIZAR BERISTAIN

ALKATEORDEA

OGASUNA, ONDAREA eta KONTUAK
BERDINTASUNA eta POLITIKA FEMINISTA

itziaririzar@deba.eus

ARITZ LARRAÑAGA UNANUE

ALKATEORDEA

BARNE ERREGIMENA
ONGIZATE POLITIKA
EUSKARA ETA KULTURA (JAIK)

aritzlarranaga@deba.eus

ANTXON ETXEBERRIA LARREA

HEZKUNTZA, KIROLA eta GAZTERIA

antxonetxeberria@deba.eus

NEREA ARRIZABALAGA BADIOLA

EKONOMIAREN SUSTAPENA eta LANDA
EREMUAREN GARAPENA (TURISMOA,
MERKATARITZA, OSTALARITZA, GEOPARKEA)

nereearrizabalaga@deba.eus

ANTXOKA ELORZA ALTUNA

OBRAK, ZERBITZUAK
eta INGURUMENA

antxokaelorza@deba.eus

Portu kalea, 1

+34 943 192 840

info@deba.eus



DEBAKO UDALA



José Mari Soto
Aperribay
Deba, 1964.

“La fuerza del Amaikak-bat reside en el apoyo del pueblo y la gente de Deba, por eso hemos planteado unos actos para agradecer ese apoyo”

“Futbolean jolastu, baina batez ere entrenatu nahi duten neska guztiak animatu nahi ditut gurekin harremanetan jar daitezten”

Hemos hablado con el presidente del Amaikak-bat José Mari Soto Aperribay en el 75 aniversario del club. Lleva unos 11 años de directivo y los últimos 6 de presidente. Actualmente también es directivo de la federación guipuzcoana de fútbol.

Os encontráis en plena celebración del 75 aniversario del club ¿Cómo la planteáis?

La fuerza del Amaikak-bat reside en el apoyo del pueblo y la gente de Deba, por eso hemos planteado unos actos para agradecer ese apoyo y para compartirlos y disfrutarlos con nuestra gente, los socios, los patrocinadores, los entrenadores y directivos, la sección de ciclismo, los jugadores..... y, en general, con todos los debarras.

¿Amaikak-Bat cuenta con buena salud?

Sí, la salud del Amaikak-bat es buena, tenemos un gran apoyo en Deba, con una gran masa social, actualmente unos 1000 socios, fieles patrocinadores, un gran número de personas que altruísticamente dona su tiempo para ayudar al club, ejerciendo de entrenadores, directivos, etc. Nuestro objetivo es ofrecer la posibilidad de hacer deporte a los debarras que lo deseen y darles una formación futbolística y en valores del deporte, para ello estamos facilitando formación a nuestros entrenadores. Ahora contamos con 10 equipos con unos 200 jugadores, en su mayoría debarras y con una escuela de fútbol, en la que se ejercitan unos 100 niños. En el aspecto deportivo, casi la totalidad de los equipos están compitiendo al más alto nivel provincial con clubs de poblaciones mayores a la de Deba.

La temporada pasada los equipos femeninos han obtenido buenos resultados. ¿Cómo fomentáis la participación de las niñas?

El fútbol femenino en los pueblos pequeños es muy irregular. Sí es verdad, que en los últimos años, cuando hemos contado con jugadoras suficientes, se han obtenido ascensos y campeonatos, muy meritorios para jugadoras y entrenadores, este año las cadetes obtuvieron el campeonato. Pero también es verdad que hay años en los que hemos tenido que renunciar a sacar alguno de los 3 equipos, senior, cadete e infantil, por falta de jugadoras. Hemos organizado actividades como traer al equipo femenino de la Real a entrenar a Deba para fomentar la afición de las chicas por el fútbol. Aprovecho para animar a todas las chicas que quieran jugar y, sobre todo entrenar que contacten con nosotros.

¿Cuál es la situación?

Pues la situación de cara a la próxima temporada sigue siendo delicada, tenemos 2 de los 3 equipos sin chicas suficientes y tendremos que hacer equilibrismos, pasando jugadoras de su categoría a otras para poder sacar los 3 equipos. Llevamos 2 años buscando solucionar este problema fomentando la creación de un club femenino supramunicipal, planteamiento que ha tenido éxito en otras comarcas de Gipuzkoa.

También estáis trabajando en el fomento del euskera.

Sí, desde el ayuntamiento de Deba nos han planteado participar en un proyecto de fomento del uso del Euskera en el deporte, ofreciéndonos ayuda en forma de metodología de implantación y, nos pareció muy interesante y hemos decidido ponerlo en marcha esta misma temporada.